

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

229/2016 Foru Agindua, irailaren 28koa, behin betiko onartzen duena Arratzua-Ubarrundiako hiri antolamendurako plan orokorraren 1. aldaketaren espedientea, zenbait baldintzarekin

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Arratzua-Ubarrundiako Udalak, 2015eko azaroaren 30eko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea hiri antolamendurako plan orokorraren (HAPO, aurrerantzean) 1. aldaketa puntualari, Uribarri Ganboako bolatokiaren antzinako eraikina hartzen duen lurzatiaren hirigintza kalifikazioa "kirolerako komunitate ekipamendutik" "erakundeen komunitate ekipamendura" aldatzearen gainekoari, bai eta jendaurrean jartzea ere 30 egunez. Horretarako, iragarkiak argitaratu ziren 2015eko abenduaren 23ko ALHAOn (150. zk.) eta 2016ko otsailaren 5eko Diario de Noticias de Álava egunkarian, eta jakinarazpena bidali zitzaion Uribarri Ganboako Administrazio Batzarrari.

Bigarrena. Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Biodibertsitate Zerbitzuak txostena egin zuen 2015eko urriaren 27an. Txosten horretan azaltzen duenez, aipatutako aldaketa puntualerako, ez da ingurumen ebaluazio estrategikoaren prozedura jarraitu behar, abenduaren 9ko 21/2013 Legeak, ingurumen ebaluazioarenak, ezarritakoari jarraituz.

Hirugarrena. Ebroko Konfederazio Hidrografikoak, 2016ko martxoaren 11n emandako txostenean, aldeko irizpena eman zien bai jabari publiko hidraulikoa eta korronteen araubidea babesteari buruzko gaiei, bai eskari hidriko berrien gainekoei.

Laugarrena. Jendaurreko epean ez zen alegaziorik aurkeztu, eta Udalak, 2016ko martxoaren 21eko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Bosgarrena. - Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak espedienteari eragozpenik ez jartzea erabaki zuen, Arabako Hirigintza Planeamenduaren Atalaren ekainaren 9ko 3/2016 bilkuran.

Seigarrena. Arratzua-Ubarrundiako Udalak espedientea bidali zuen aldundiak behin betiko onar zezan (sarrera erregistroko data: 2016ko ekainaren 27a).

II. OINARRIAK

Lehenengoa. Uribarri Ganboako Administrazio Batzarrak sustatu eta Arratzua-Ubarrundiako Udalak izapidetutako espedienteak aldatu egiten ditu "B-Hirigintza araudia agiriaren" 2.1.1.18 artikulua eta bi plano, Uribarri Ganboako herriguneko "hiri lurzoru urbanizagarriaren zonifikazio orokorraren" P-3 plano eta "zonifikazio xehakatuaren" P-4 plano, udalerriaren hiri antolamendurako plan orokorrekoak (irailaren 23ko 462/2013 Foru Aginduaren bidez behin betiko onarpena eman zitzaion zati bati, eta 2013ko azaroaren 29ko ALHAOren 137. zenbakian argitaratu zen). Aldaketa horren xedea da hirigintza kalifikazioa aldatzea aipatutako administrazio batzarraren jabetzako 1 poligonoko 29. lurzatiari, "kirolerako komunitate ekipamendurako zona publiko" (G.4) izatetik "erakundeen komunitate ekipamendurako zona publiko" (G.9) izatera igaro dadin, eraikina egokitu eta kontzeju areto eta zerbitzu biltegi bihurtzeko birgaitze lanak egin ahal izateko.

Bigarrena. Horretarako, agiriak aldaketa hori justifikatzeko beharrian hauek aipatzen ditu: alde batetik, administrazio batzarrari erakundearen eginkizunak egiteko lokal egokia emateko beharra, gaur egun, administrazio batzar horren kontzeju aretoa antzinako eskolen eraikinaren

zati batean dagoelako eta, une honetan, gaizki zainduta eta egoera txarrean dagoelako eraikin hori; eta, bestetik, historian bola jokorako erabili izan den eraikina lehengoratzeko beharra, Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren iritziz “kultura eta ingurumen balio interesgarria duen higiezia... nolabaiteko babes berezi duena” delako. Antzinako bolatokiaren eraikinaren egituraren zati bat, estalkia eta fatxadako hormak mantendu dira, baina ez dauka kirol horren berezko den elementu arkitektonikorik, ez eta apaingarririk ere.

Hirugarrena. Espedientea eta agiri teknikoa aztertuta, eta proposatutako aldaketaren atzean interes orokorra dagoenez, irtenbidea ematen baitzaie hornidura eta ekipamendu arloan udalerririak dituen beharrei, onarpenari ezin zaio inolako eragozpenik jarri.

Laugarrena. Nolanahi ere, eta txostenaren xede den eraikina hartzen duen lurzatiaren erabilera nagusia kontzeju aretoa izango den arren zerbitzu biltegia ere han jarrikoenez, proposatutako erabilera aldaketak “komunitate ekipamendu orokorrerako zona publikora” (G.0) aldatzea izan beharko du.

Birkalifikazio horri esker, ahalbidetuko da ekipamendu erabilerari dagozkion hainbat kategoria aldi berean egotea horretara bideratutako lurzati bakarrean, gorago aipatutako kalifikaziopean.

Bosgarrena. - Agiri teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, aurkeztu behar diren agiri guztiak aurkeztuko dira, adierazitako zuzenketarekin batera, fitxategi editaezinetan (*.pdf luzapena) zein fitxategi editagarrietan (zehazki, planoak *.dwg formatuko fitxategietan —arkatzen fitxategia erantsi behar da, *.ctb formatukoa edo *.shape fitxategietan, eta testua *.doc fitxategietan).

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onarpena ematea Arratzua-Ubarrundiako hiri antolamendurako plan orokorraren 1. aldaketaren espedienteari, Uribarri Ganboako bolatokiaren antzinako eraikina hartzen duen lurzatiaren hirigintza kalifikazioa “kirolerako komunitate ekipamendurako zona publikotik” (G.4) “erakundeen komunitate ekipamendureko zona publikora” (G.9) aldatzearen gainekoari, honako baldintza hauekin:

- Proposatutako erabilera aldaketak “komunitate ekipamendu orokorrerako zona publikora” (G.0) aldatzea izan beharko du, posible izan dadin aipatutako lurzatiaren aurreikusitako ekipamendu erabilerako kategoriak batera izatea, alegia, “erakundeen” erabilera eta “zerbitzu publikoena”.

- Aldaketa horiek euskarri informatikoan jasoko dira, eta berriro aurkeztu beharko da agiri teknikoaren edukia nola fitxategi editagarrietan hala editaezinetan.

Bigarrena. Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espedientea foru aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du; beronen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu daiteke zuzen-zuzenean Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi edo argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 28a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO